



Eusko Jaurlaritzak “gazteriarentzat enplegu duina sortu ordez **beke prekarioak** sustatzen dituela” kritikatu dute

- Lehen Aukera programak **lan eskubideak** kaltetzen dituela salatu dute
- Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak **kalitatezko lana sustatzeko neurriak** proposatu ditu

Vitoria-Gasteiz, 2014ko apirilaren 14an. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu Planaren baitan dagoen **Lehen Aukera** programak “euskal gazteriarentzat enplegu aukera duinak sortu beharrean, baldintza prekarioak dituzten bekek ezartzen dituela” salatu dute gaur elkarte, sindikatu eta gizarte mugimendu ezberdinetako gazteek Gasteizen eskaini duten prentsaurrekoan.

Lehen Aukera: ez lehena, ez aukera lelopean, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren baitan biltzen diren Enplegu eta Hezkuntza foroetako gazteek manifestu bat plazaratu dute, Jaurlaritzak abiatutako programaren gainean egin duten irakurketa kritikoa ezagutarazteko. Zehazki, Lehen Aukera programak **hiru hilabeteko beke eskaintzen du, hilean 500 euroren truke jardunaldi osoan**. Kontseiluko presidenteorde Xabier Lasak azaldu duenez, “Jaurlaritzak lehenengo enplegu esperientzia bat eskaintzeko promesa egin zuen, baina errealitatea bestelakoa da: kontraturik gabeko beke ez laboralak eskaintzen dizkigute, gutxieneko soldata baino txikiagoa den ordainsari baten truke eta, gainera, enpresentzat dohainik, Hezkuntza Saileko aurrekontuen lepotik”.

Hainbat dira, gazte-talde hauen arabera, gazteriaren prekariedade egoera okertzen duten programaren ezaugarriak. Zehazki, parte hartzen dutenek “lan kontraturik ez dutela” salatu dute, horrek “bere lan eskubideak kaltetzen” dituelako hainbat mailatan: “Lehen Aukera programarekin, ez dugu ondoren **langabezia kobratzeko** eskubiderik eskuratzen, ez dugu **ordaindutako oporrik**, ez dugu enpresan **ordezkaritza sindikala** izateko eskubiderik, egiten duguna ez da **lan-bizitzaren** txostenean enplegu gisa kontuan hartzen, ez dugu enpresan **antzinatasuna** lortzen etorkizuneko balizko kontratazioei begira eta ez dugu lan-zuzenbidearen babesik”. Argitu dutenez, gainera, gazteek ez dutenez lan kontraturik, behin hiru hilabeteko beke-epea bukatuta enpresariak berriro beste figura bereziren bat bat eskaini ahal die enpresan jarraitzeko, esaterako praktikak berriro egitea ala ekintzaileentzako kontratua; hortaz, ezerk ez du ziurtatzen programa honek **lanpostuak sortuko dituenik**”.

ORDUA 3 EUROTAN

Beka hauen ordainsaria hilean 500 eurokoa da jardunaldi osoan, edo, gazteen hitzetan, “lanordua 3 eurotan” ordaintzen diete, “gutxieneko soldatatik behera eta pobreziaren mugatik behera ere”, azken hau pertsonako 646 eurotan ezarri baitu Eustat Euskal Estatistika Erakundeak. Gainera, Gazteriaren Kontseiluko Enplegu Foroko Estibaliz Monterok nabarmendu duenez, “enpresek dohainik lortzen dituzte bekadunak, ondoren pertsona horiek kontratatzeko edo gutxienez diru publikoaren bidez lortu dituzten onuren zati bat



gizarteari itzultzeko edonolako betebeharririk gabe”. Horrez gain, aipatu duen bezala, “enpresariak ez du zertan frogatu behar bekadun horrekin ez duela lanposturik ordezkatzeko eta hortaz enplegua suntsitzen ari”.

“Beka hauek lortzen dituzten gazteek orokorrean dagoeneko aurretik praktikak egin dituzte bere ikasketetan”

Manifestuaren sinatzaileek zehaztu dute ere beka hauek titulatuak dauden gazteentzat direla, eta bekadun horiek kasu **gehienetan dagoeneko aurretik praktikak** egin behar izan dituztela bere ikasketetan zehar. Horrek esan nahi du “programa honek ez diela lehenengo esperientzia bat eskaintzen, bigarren edo hirugarren bat baizik”, EGK-ko

Enplegu eta Hezkuntza foroetako Gorka Maiztegik zehaztu duenez. Bere hitzetan, bestalde, “bere ikasketetan zehar enpresa batean praktikak egin dituen gazteak ondoren enpresa horretan bertan Lehen Aukera bekarekin praktikak berriro egitea sustatzen du deialdiak, eta modu horretan **bekak bata bestearen atzetik kateatzen** dira, enpresariak gazte horri lan kontratua egin diezaion sustatu beharrean”. Hori guztia, “Hezkuntza Sailaren aurrekontuen lepotik, Lanbideren diruaren bitartez egin beharrean”.

PROPOSAMENAK

Programak ezartzen dituen baldintzen aurrean, manifestuaren sinatzaileek hainbat neurri proposatu dituzte Lehen Aukerak enplegu duina sustatu dezan eta gazteen lan eskubideak bermatu dituzte: beka ez laboralen ordezkari, **lan kontratuak** sinatzearen alde apustu egitea (praktika kontratuak ala bestelakoak); praktika kontratuen **epea hiru hilabetetik harago** luzatzea, Europar Batasunak gomendatzen duen bezala; hitzarmen kolektiboekin eta lan orduekin bat datozen **ordainsariak** ezartzea eta enpresei **egonkortasun klausulak** exigitzea, behin diruz lagundutako epea bukatuta, gazte horiek gutxienezko epe baterako kontratatzeke konpromisoa har dezaten.

Era berean, **enpresa-batzordeari** eta bitarteko sindikalei gazte horien lanaren berri emateko betebeharrak ezartzea proposatzen dute, bai eta programan parte hartzen duten gazteen **jarraipen bat** egitea, bere lanaratzeari eta enplegialitateari aztertu ahal izateko. Azkenik, neurri hauek guztiak **Lanbideren** bitartez egitea eskatzen dute, Euskadin bizi diren gazte guztiek baldintza berdinetan izan dezaten programan parte hartzeko aukera, edozein dela ere bere ikasketen-zentroa.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko Enplegu eta Hezkuntza foroak honako eragileek osatzen dituzte: Comisiones Obreras Gazteak, Ecuador Etxea, Ezker Anitza Gazteak, Ikasle Abertzaleak, Ikasle Ekintza, Iratzarri, Junior Enpresen Euskal Federazioa, Juventudes Socialistas de Euskadi eta Kale Dor Kayiko, bai eta norbanako gazteek ere. Egunotan, manifestuari **atxikimenduak** biltzen ari dira eta, oraingoz, hamar egunetan 14 kolektiboren babesa jaso dute: Alternatiba Gazteak, Comisiones Obreras Irakaskuntza, Consell Nacional de la Joventut de Catalunya, EHNE, ELA Gazteak, Elkartzen, ESK, Gazte Abertzaleak, Gazte Kanpua, Gazte Komunistak, Juventudes Obreras Cristianas (JOC), UGT Euskadi, LAB eta Lilith-Euskadiko Emakume Gazteak. Gazteriaren Kontseiluko atarian sinatu daiteke manifestua, www.egk.org helbidean.

Informazio gehiago

945 22 06 01
6886 67 59 32 / 665 71 16 40
Itsaso Estarrona Elizondo
Komunikazioa